

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 18

*EBAZPENA, 2022ko abenduaren 14koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baitira Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko uztailaren 26ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza eskaerak. Agindu horren bidez, 2022an kirolaren sektoreko enpresa eta profesional autonomoentzako COVID-19 laguntzak arautu eta deialdia egin zen.*

#### AURREKARIAK

1.– 2022ko irailaren 15ean argitaratu zen EHAAn Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko uztailaren 26ko Agindua, 2022an kirolaren sektoreko enpresa eta pertsona profesional autonomoentzako COVID-19 laguntzak arautzeko eta deialdia egiteko.

2.– 9.2 artikulua arabera, deialdian aurkeztutako eskabideak dagokien prozeduraren bidez izapidetuko dira, eta prozedura hori ebaztea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariari dago-kio. 9.3 artikulua ezartzen duenaren arabera, ematen den ebazpenak erabakiko du eskatutako dirulaguntzak ematen diren edo, hala badagokio, ukatzen diren; ematen badira, pertsona edo erakunde onuradunen izena edo izen soziala eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko dira. Ukatutako eskabideei dagokienez, eskatzaileen nortasuna edo izen soziala eta laguntza zergatik ukatu den adieraziko da.

Horiek horrela, eta aipatutako aginduaren 9.2 artikulua emandako eginkizunak betez, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatutako erakundeei dirulaguntzak ematea, eranskinean adierazitako zenbatekoekin.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako eskabideak ezestea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– 2022ko uztailaren 26ko Aginduan araututako dirulaguntzen onuradunek testu horren 12. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Jakinarazten da, halaber, emandako laguntzak 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan aurreikusitakoaren mende daudela, Europar Batasuneko Fun-tzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoaren mende.

Laugarrena.– Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 12 a) artikuluan adierazitako epea igaro ondoren ordainduko da dirulaguntza, ukorik izan ez bada.

Ordainketa izapidetu aurretik, erakunde onuradunek esleitutako dirulaguntza onartu beharko dute. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamar egu-neko epean onuradunak dirulaguntzari berriaz eta idatziz uko egiten ez badio, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

Bosgarrena.– Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez badu betetzen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan aurreikusitako betebeharren bat, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria, onuradunari entzun eta dagokion prozedura gauzatu ondoren, emandako laguntza ordaintzeko eskubidea galdu duela deklaratu du.

Seigarrena.– Gainera, emandako laguntza ordaindu bada, bidezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako zenbatekoa itzultzeko betebeharra adieraztea, bai eta dirulaguntzen arloan berandutze-interesa eskatzea ere, dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketaren bidezko tasuna erabakitzen den egunera arte, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera arte, hori baino lehenagokoa bada, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 artikuluan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau banan-banan jakinaraziko zaie interesdun guztiei, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 14a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,  
GORKA ITURRIAGA MADARIAGA.

2023ko urtarrilaren 2a, astelehena

## I. ERANSKINA

Interesduna	Espedientea	Emandako zenbatekoa (euro)
A&S Kirol Gimnasio SL	040-KEP-2022	20.000,00
Actividades Deportivas Ginkgo Biloba SL	012-KEP-2022	13.886,41
Alfonso Sainz Basarrate	051-KEP-2022	20.000,00
Ángel Daza Blanco	027-KEP-2022	20.000,00
Arturo Olano Erenya	021-KEP-2022	5.670,10
Bilalquiser Servicios y Alquileres SL	008-KEP-2022	9.839,03
Bilbao Wellness Managers SL	016-KEP-2022	20.000,00
Body Gim Portugaleta SL	033-KEP-2022	20.000,00
Body Teach SL	035-KEP-2022	13.240,94
Centro Integral de Salud y Deporte Kiden S. C.	011-KEP-2022	15.748,92
Cristina Martín Belloso	015-KEP-2022	18.645,88
D. U. Training Sport Leioa SL	010-KEP-2022	20.000,00
Daniel Arenas Fidalgo	047-KEP-2022	19.502,21
Dena Bilbao Academia de Danza SL	037-KEP-2022	20.000,00
Diego Valtierra de Pablo – Jon Fernández Fernández	006-KEP-2022	7.276,07
Docuruya SL	034-KEP-2022	20.000,00
Ergoactiv Sport SL	017-KEP-2022	20.000,00
Ernesto Vega Celdrán	014-KEP-2022	3.259,91
Escuela de Golf Larrabea SL	026-KEP-2022	8.453,10
Evaitor Gym SL	046-KEP-2022	20.000,00
Gimnasio Arena Sport Managers SL	005-KEP-2022	20.000,00
Gimnasio Rodas SL	003-KEP-2022	20.000,00
Gist-Fitnes SL	020-KEP-2022	20.000,00
GMA Gestisport SL	028-KEP-2022	20.000,00
Idoia Ruíz Alegre	004-KEP-2022	20.000,00
Irumbide Kirol SL	023-KEP-2022	20.000,00
Javier Conde Cuesta	009-KEP-2022	3.157,02
Josu Aingeru Butrón Yagüe	044-KEP-2022	20.000,00
Kirolak SL	019-KEP-2022	20.000,00
Kiroletan Sport SL	001-KEP-2022	20.000,00
Loizaga Prest SL	054-KEP-2022	14.579,33
Maite Ikarán Souville	045-KEP-2022	2.186,79
Maria Soledad Sonia Gerboles	043-KEP-2022	9.613,01
Mubyfemenino SL	042-KEP-2022	20.000,00
Reyada Kirol SL	038-KEP-2022	20.000,00
Shorinji Kempo JCB SL	029-KEP-2022	6.479,90
Spinnfield Sport Is More SL	050-KEP-2022	8.130,37
Top Performers INT SL	022-KEP-2022	20.000,00
Urtzi Fitness Club SL	018-KEP-2022	20.000,00
	<b>Guztira</b>	<b>619.668,99</b>

## II. ERANSKINA

Interesduna	Espedientea	Ukatzeko arrazoia
Asociación Deportiva y Cultural Bizkir	039-KEP-2022	Elkartea: Ez dago aurreikusita erakunde onuradun gisa (3.art)
Asociación Deportiva-Cultural Tximeleta	013-KEP-2022	Elkartea: Ez dago aurreikusita erakunde onuradun gisa (3. art)
Club Atlético de San Sebastián	048-KEP-2022	Kirol kluba: Ez dago aurreikusita erakunde onuradun gisa (3.3 art.)
Emen 4 Sport SL	053-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Eneko García Muruamendiaraz	056-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Galacer Gym C.D.	052-KEP-2022	Kirol kluba: Ez dago aurreikusita erakunde onuradun gisa (Art. 3.3) Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	025-KEP-2022	Kirol kluba: Ez dago aurreikusita erakunde onuradun gisa (3.3 art.)
Gym Txorierri SL	002-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Jokin Guijarro Iruretagoiena	032-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Jolasaldi S.A.	024-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
José Luis Iglesias Martín	031-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Kirol Nagusia SL	036-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Kirola & Gaitasuna SL	041-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Leire Pérez Sotelo	055-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)
Unai Jorge Fernández y otro C.B.	030-KEP-2022	Ez ditu betetzen fakturazio baldintzak (3.1 art.)